

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

57/2020 Mozioa, uztailaren 20koa, hiri barruko eta hiri arteko garraio publikoa kontuan izateko COVID-19ren krisia dela eta garatu beharreko ezohiko planetan

Arabako Batzar Nagusi hauetako Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren VI. Batzordeak, 2020ko uztailaren 20an egindako bilkuran, honako mozioa onetsi zuen:

57/2020 Mozioa, uztailaren 20koa, hiri barruko eta hiri arteko garraio publikoa kontuan izateko COVID-19ren krisia dela eta garatu beharreko ezohiko planetan.

Arabako batzar Nagusiek garraioaren arloan eskumenak dituzten instituzio guztiei eskatzen diete ezen COVID-19ren krisia dela eta garatu beharreko ezohiko planetan kontuan izan daitezela hiri barruko eta hiri arteko garraio publikoak dituen inpaktu negatiboak, eta baliabide ekonomikoak bideratu daitezela garraio hori une honetan zein etorkizunean mantentzeko eta hobetzeko, trena egokia delako gizartearen iraunkortasunerako eta kohesiorako.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 20a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA